



Zientziaren Astearen edizio honetan, Udalak erronka eta asmakizun matematiko batzuk proposatzen ditu, udal MUPISetan aurki daitezkeenak.

MUPISak dira Haraneko hainbat kaletan aurki daitezkeen publizitate-kartel handiak, eta oraingo honetan proben euskarri dira; beraz, edozein pertsona animatu daiteke horiek aste osoan zehar ebaztera.

Erronkak konpontzeak saria du, eta Udalean zein Olazko eta Sarrigurengo liburutegietan parte hartzeko, erantzun-formularioak eta postontziak eskuragarri egongo dira, bete ondoren uzteko.

Parte hartzeko epea azaroaren 15ean amaitzen da, eta azaroaren 17an zozketan egingo da asmatzaile guztien artean, eta webgunean argitaratuko dira soluzioak eta irabazleen izenak.

Harana zeharkatzera animatzen zaitugu, arrazoitzera eta pentsatzera eta ekimen honetan bakarka edo taldean parte hartzera.

Proposatutako erronkak bi dira:

1: ASMAKIZUN LOGIKOEN LEHIAKETA: TURINGEKO GAZTELUA

Turing gaztelua ANFoMAN* proiektuaren parte diren NUPeko irakasleek egin dute, eta Zientziaren Astean egin ahal izateko egokitu dugu.

Erronka horrek 5 urrats ditu, eta horietan, proposatutako pisten bidez, zein ate ireki aukeratu behar da.

5 pasabideak Nafarroako Erresumaren eta Espainia etorbidearen arteko bidegurutzean (1. igarkizuna), Bardea kalean (2. eta 3. asmakizuna), Urbasa kalearen eta Europar Batasunaren arteko bidegurutzean (4. asmakizuna) eta Olaz etorbidean (5. asmakizuna) daude.

Igarkizun bakoitzean zenbakia seinaleztatuta dago, modu korrelatiboan egin ahal izateko.

Guztiak behar bezala ebatzi behar dira sarien zozketan parte hartu ahal izateko.

** "ANFoMAM proiektua Europar Batasuneko Erasmus+ programarekin batera finantzatzen da. Argitalpen honen edukia Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ardura da soilik, eta ez Europako Batzordea, ez Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzua (SEPIE) ez dira hemen zabalduzako informazioaz egin daitezkeen erabileraren erantzule."*



AYUNTAMIENTO
VALLE DE EGÜÉS
EGUESIBARKO
UDALA



Semana de
laCiencia
del Valle de Egüés
Eguesibarko
Zientziaren
Astea

upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa



2: ERRONKA MATEMATIKOAK

Jarduera honetan zailtasun maila desberdineko 12 erronka matematiko ditugu, NUPEko Estatistika, Informatika eta Matematika Saileko irakasleek proposatuak.

Erronkak 6 MUPISetan aurki ditzakezu: Ripagaina (1. eta 2. erronkak), Olaz (3,4,5 eta 6. erronkak), Gorraiz (7,8,9 eta 10. erronkak) eta Eguesen (11. eta 12. erronkak). MUPI bakoitzak bi erronka ditu.

Kasu honetan, sarien zozketan parte hartu ahal izateko, beharrezkoa da proposatutako 12 erronketatik gutxienez 8 zuzen konpontzea.